

Albaitaritzako sendagaiak kontrolatzeko programaren emaitzak

MAPAre menpeko Animalien Osasun eta Higienarako eta Trazabilitaterako Zuzendariordetza Nagusiak berriki argitaratu du albaitaritzako sendagaien banaketa, preskripzio eta ematearen kontrol ofiziala egiteko programa nazionalaren baitan egindako kontrol ofizialen emaitzak biltzen dituen urteko txostena.

COVID-19aren ondoriozko osasun-egoera dela bide, **murriztu egin da kontrolatutako establezimenduen** kopurua esparru guztietan. Alabaina, mantendu egin da inspektio-maiztasuna ia sektore guztietan.

Horri horrela izanik ere, oro har, **handitu egin da kontrol-unibertso** hau:

- **Xehekako saltegiak: % 14**
- **Abeltzaintzako entitate edo taldeak: % 12**
- **Albaitari profesionalak: % 73**

Jarraian, kontrol-esparruetan jasotako **emaitzen joerak** daude azalduta:

1. **Handizkako biltegiak: murriztu egin da ez-betetzeak** hauteman dituzten kontrolen kopurua. Dena den, azpimarratu egin behar da 3 zehapen-espediente ireki direla; izan ere, lehen aldia da 2012tik.
2. **Xehekako saltokiak:** handizkako merkatarien kasuan **bezala**, murriztu egin da ez-betetzeak hauteman dituzten kontrolen kopurua, baina zehapen-espediente gehiago dago.
3. **Abeltzaintzako entitate edo taldeak: handitu egin dira ez-betetzeak** hauteman dituzten kontrolen eta zehapen-espedienteen ehunekoak (% 26,51 eta % 10, hurrenez hurren).
4. **Albaitari kliniko profesionalak:** beste kontrol-programa batzuetan “**susmagarritzat**” jotako albaitariei egin zaizkie kontrol guztiak; hau da, **ez** zaie ikuskapenik egin beren **albaitaritzako botikina deklaratu** duten profesionalak. **Ez-betetzeak** hauteman dituzten kontrolen ehunekoa **nabarmen hazi da 2018tik hona** eta une honetan **% 63,41ean** Hala eta guztiz ere, **zehapen-espedienteen ehunekoa % 22tik % 8,79ra murriztu da 2020an**, eta 2011tik egon den ehunekorik txikiena da.
5. **Albaitaritzako sendagaien Internet bidezko salmenta**, derrigorrezko preskripziorik gabe: ez-betetzeek % 2 hartzen dute.
6. **Autotxertoak ekoizten dituzten laborategiak:** ez-betetze guztiek etiketekin izan dute zerikusia, eta ez da zehapen-espedienterik ireki.

Programaren helburuak betetzeko, honako hauek **hobetzea gomendatzen da:**

- albaitaritzako sendagaiak banatzeko eta emateko **baimena duten establezimenduei** eskatzen zaizkien betekizunak (trazabilitateari arreta berezia jarrita)
- **albaitari profesionalak** albaitaritzako preskripzioak egiteko erabiltzen duten prozesua eta albaitaritzako sendagaiak edukitzeko bete behar dituzten betekizunak.

Horretarako, **Zuzendariordetzak azpimarratu du kontrolari (albaitaritzako sendagaien banaketa, preskripzioa eta ematea) modu ez hain zatituan heldu behar zaiola**, esparru ezberdinak barne hartuko dituzten zeharkako kontrolen bidez eta abeltzaintza-ustiategiak ere aintzat hartuta.

Entzefalopatia espongiforme transmitigarriak kontrolatzeko erregelamendu berria

Europako Batzordeak [2021/1176 \(EB\) Erregelamendua](#) argitaratu du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren [99/2001 \(EE\) Erregelamenduaren](#) zenbait eranskin aldatzen dituena entzefalopatia espongiforme transmitigarriari dagokienez.

Abuztuaren 8an indarrean jarriko den erregelamendu horren berritasun nagusiak honako hauek dira:

- Ahuntz-azienden entzefalopatia espongiforme transmitigarri positiboen kasuak genotipatzeko beharra ezartzen du.
- Erresuma Batuarekin zerikusia duen hausnarkari txikien adina zehazteko aukera bat indargabetzen du.
- Dardara atipikoa izanez gero, indargabetu egiten ditu zaintza intentsiboko betebeharrak.
- Zehaztu gabeko arriskua duen herrialde bateko behi-, ardi- eta ahuntz-azienden produktu eratorrien inportazio-baldintzak bateratzen ditu, behien entzefalopatia espongiformeko arrisku kontrolatua duen herrialde batetik EBra inportatzen diren kasuetarako.

Neurri horiek erlaxatu egiten dituzte 2001etik indarrean dauden entzefalopatia espongiforme transmitigarrien kontrolak, eta entzefalopatia espongiforme transmitigarriak prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko programaren emaitza onen ondorio dira.

EBn hegazti-gripea zaintzeari buruzko 2020ko urteko txostena

Batzordearen [2005/94 \(EB\) Zuzentarauak](#) ezartzen du EBko estatu kideek (EK) hegazti-gripearen (HG) zainketa egin behar dutela baserriko hegaztietan eta hegazti basatietan, eta emaitzak agintaritzaren arduradunari jakinarazi behar dizkiotela.

Horretan oinarrituta, estatu kideak, Islandiak, Norvegiak, Suitzak eta Erresuma Batuak urtero ikuskaritza-programak ezartzen dituzte birusaren agerraldiak monitorizatzeko. Bildutako datuetan oinarrituta, EFSAk 2020rako txostena argitaratu du.

Mota horretako bigarren txostena da, eta estatu kideek zuzenean EFSari bidalitako datuekin egin

da. Hauek dira txostenaren ondorio nagusiak:

- Guztira, 24.768 hegazti-establezimendutan (HE) egin ziren laginak, eta horietatik 46 seropositiboak izan ziren birusaren H5 anduiarentzat eta zazpi H7 anduiarentzat.
- HE seropositiboak hauteman ziren bederatzi estatu kideetan (Belgika, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Italia, Herbehereak, Polonia, Espainia eta Suedia) eta Erresuma Batuan.
- Aurreko urteetan bezala, HE seropositiboen ehuneko handienak uretako ehiza-hegaztien eta antzara ugaltzaileen haztegieta hauteman ziren.
- H5 eta H7 anduiarentzat proba serologiko seropositiboak izan zituzten 53 hegazti-establezimenduetatik zazpi emaitza positiboak izan zuten polimerasaren kate-erreakzioan (PCR), edo birologian birusaren H5 eta H7 anduietan; zazpi patogenotasun txikiko hegazti-gripean (LPAI) eta bat patogenotasun handiko hegazti-gripean (IAAP).
- Gainera, 13 herrialdek 748 hegazti-establezimenduren PCR emaitzak jakinarazi zituzten, eta horiek ez zetozen bat gertakari serologiko seropositibo baten jarraipen-probekin (adibidez, establezimendu batzuetan PCR probak erabili ziren baheketarako). Hegazti-establezimendu horietatik 25 positiboak izan ziren hegazti-gripearen ARN birikorako. Emaitza positibo horiek Bulgarian, Estonian, Alemanian, Errumanian eta Eslovakian hauteman ziren.
- Guztira 18.968 hegazti basatiren laginak hartu ziren, eta 878 hegaztik izan zuten emaitza positiboak IAAP birusean.
- 14 herrialdek IAAP emaitza positiboak izan zuten hegazti basatien kasuak jakinarazi zituzten, eta hegazti-gripearen andui positibo guztiak, patogenotasun handikoak, H5 gisa identifikatu ziren.
- Hegazti positibo gehienak H5N8 anduiarekin kutsatu ziren, identifikatu gabeko N1, N3, N5 eta NA azpimoten kopuru txikiagoarekin.
- Gainera, 317 hegaztik emaitza positiboak izan zuten LPAI H7 edo H5 birusetan, eta 429 hegaztik emaitza positiboak izan zuten H5 eta H7 ez ziren hegazti-gripearen anduietan; horiek 31 herrialdetan hauteman ziren.
- 2020ko baserriko hegaztien eta hegazti basatien ikuskaritzaren emaitzak eztabaidatzen eta alderatzen ari dira adituak, European hegazti-gripearen epidemiologiaren inguruan gaur egun dauden ezagutzekin, eta, bereziki, 2020. urtearen amaieran identifikatu zen H5N8 epidemiarekin.

[Hiltegia egiten den post mortem azterketaren prozedura berrikustea](#)

AESANeko Batzorde Zientifikoak hiltegiko albaitaritzaz-zerbitzuentzako gida bat berrikusi du, ohiko *post mortem* azterketaz gain prozedura osagarriak egin behar diren kasuetarako.

AESANek, autonomia-erkidegoekin batera, gida bat sortu zuen duela gutxi, ***post mortem* azterketan zehar prozedura osagarriak** behar dituzten **kasuak** biltzeko. Prozedura horiek **2019/627 (EB) Betearazpen Erregelamenduan ezarritako irizpideetan oinarrituta daude**, zeinaren bidez giza kontsumorako animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialak egiteko xedapen praktikoa bateratuak ezartzen diren.

Erregelamendu horrek aintzat hartu ditu **EFSAren irizpenak**, zeinetan gomendatzen den, ahal den neurrian, **haztapen- eta ebakitze-prozedurak sistematikoki egin daitezela saihestea**,

hildako animalien **post mortem** azterketan zehar, **mikrobioen hedatzea eta kontaminazio gurutzatua murrizteko.**

Hala eta guztiz ere, **erregelamenduak** aipatzen du **kasu batzuetan haztaperen eta ebaki osagarriak egin behar direla txerrien, behien, ardien, ahuntzen, solipeden eta itxian hazitako animalia ehizatuen haragien post mortem azterketetan, baldin eta giza osasunerako, animalien osasunerako edo animalien ongizaterako arriskutsuak diruditen elementuak agertzen badira, esaterako:**

- **Elikakatearen informazioaren, kontrolen eta osasunaren arloko beste dokumentazio batzuen analisia.**
- **Ante mortem azterketaren ondorioak.**
- **Animalia-ongizaterako** arauak betetzen direla ikusteko egiaztapenen **emaitzak.**
- **Post mortem azterketan** zehar antzemandako **lesioak.**
- Jatorri-ustiategiaren **datu epidemiologiko** osagarriak edo beste datu batzuk.

Batzorde Zientifikoak ondorioztatu du gidan proposatutako kasuak pertsoneri edo animaliei kutsa dakizkiekeen gaixotasunekin eta kontsumorako erabat edo partzialki egokiak ez diren haragien ekoizpenarekin lotu direla bibliografia zientifikoan eta/edo aplikatu daitekeen arautegian.

Horrenbestez, **post mortem azterketaz gain prozedura osagarriak** egiteko **orientazio gisa** sartu ahal izango lirateke.

Agindu berria: Hegazti-Gripearen aurkako neurriak kentzea

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2021eko martxoaren 3ko Agindua argitaratu du, zeinaren bidez kentzen baitira 2021eko urtarrilaren 4ko Aginduaren bidez autonomia-erkidegoetan hegazti-gripearen aurka ezarritako neurriak.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2021eko martxoaren 3ko Agindua argitaratu du, zeinaren bidez kentzen baitira 2021eko urtarrilaren 4ko Aginduaren bidez autonomia-erkidegoetan hegazti-gripearen aurka ezarritako neurriak.

Honako hauek handitzeko helburuarekin hartu ziren neurriok:

- biosegurtasuna
- erregistroak eta datu-baseak
- zaintza aktiboa
- zaintza pasiboa

2020an oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen hainbat foku agertu ziren EAetik igarotzen diren hegaztien migrazio-bide berberak erabiltzen dituzten estatu kideetako eskortako hegaztietan, hegazti basatietan eta itxian hazitako hegaztietan, eta horrexegatik hartu ziren neurri horiek.

Autonomia-erkidegoetan, aintzat hartu dira egoera epizootikoa, gaixotasunaren bilakaera eta honako faktore hauek guztiak:

- gaixotasunak ez du inolako intzidentziarik
- bukatu egin da hegaztien migrazio-sasoia
- une honetan, arrisku sanitarioa txikia da

Horregatik guztiagatik, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak aho batez erabaki dute debekua altxatzeko gomendatzea.

Oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripea Zamoran: hegazti basati bat konfirmatuta

Antzar bat hilda aurkitu zuten ingurumen-agentek urtarrilaren 27an Villafafilako Aintzira Handian, Zamoran, Hegaztien Influenta Zaintzeko Programa Nazionalean ezarritako zaintza pasiboari esker, Landetako (Frantzia) birusaren egoera epidemiologikoak berriki izan duen bilakaeraren ondorioz arriskua handitu ondoren.

Azaroaren 27an [Kantabrian](#) eta urtarrilaren 22an [Gironan](#) aurkitutako IAAP H5N8 hegazti basati positiboen beste bi fokuetan bezala, aurkikuntza berri honek, oraingoan ere, aurrekoan bezalaxe, ez du osasun-estatusa aldaraziko: estatu-mailan, "hegazti-gripetik libre" sailkapena mantenduko da. Etxeko hegaztien eta horien produktuen mugimenduari ez zaio mugarik ezarriko.

Kasu horiek hauteman izanak ez du arriskurik ekartzen osasun publikoarentzat. Andui ez-zoonotikoa da:

- ez dio gizakiari eragiten
- ez da transmititzen hegazti-okelaren edo arrautzen kontsumoaren bidez

Gaztela eta Leoneko Juntak, zaintza eta kontrola indartuko ditu eremu horretan, eta egiaztatuko du ustiatagietan behar bezala aplikatzen direla biosegurtasuneko neurriak, etxeko hegaztietarako transmisioa saihestu eta etengabeko zaintza mantentzeko helburuekin. Horiek horrela, gaixotasunaren edozein susmo jakinaraziko da.

Oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripea Katalunian: 4 hegazti basati konfirmatuta

Hegaztiak Gironako Aiguamolls de l'Empordà parke naturalean aurkitu zituzten hilda, hegazti-gripearen zaintzarako programa nazionalean ezarritako zaintza pasiboari esker, zeina [Landetan \(Frantzia\) birusaren egoera epidemiologikoaren bilakaera ikusita ezarri](#)

baitzen, horrek arriskua areagotzen zuelako.

[Azaroaren 27an Kantabrian](#) aurkitutako hegazti basati batek positibo eman zuen oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripean, baina kasu bakarra izan zen. Oraingoan ere, aurrekoan bezalaxe, aurkikuntza berri honek ez du osasun-estatusa aldaraziko: estatu-mailan, "hegazti-gripetik libre" sailkapena mantenduko da.

Hori dela eta, momentuz ez da murrizketarik ezarriko etxeko hegaztien edo horien produktuen mugimenduan.

Kasu horiek hauteman izanak ez du arriskurik ekartzen osasun publikoarentzat. Andui ez-zoonotikoa da:

- **ez dio gizakiari eragiten**
- **ez da transmititzen hegazti-okelaren edo arrautzen kontsumoaren bidez**

Generalitateak zaintza eta kontrola indartuko ditu eremu horretan, eta egiaztatuko du ustiattegietan behar bezala aplikatzen direla biosegurtasuneko neurriak, etxeko hegaztietarako transmisioa saihestu eta etengabeko zaintza mantentzeko helburuekin. Horiek horrela, gaixotasunaren edozein susmo jakinaraziko da.

Agindu berria: hegazti-gripeari aurre egiteko neurri espezifikoak

MAPAk ministerioaren agindu bat argitaratu berri du (APA/19/2021) gaixotasun horri aurre egiteko neurri espezifikoak ezartzeko.

Hegazti-gripearen Europako egungo egoera epidemiologikoak agerian utzi du birusa hainbat herrialdetatik zirkulatzen ari dela uretako hegazti basatien bidez, iparraldeko hemisferiotik hegoaldeko hemisferiora egiten duten migrazio-ibilbidean zehar.

Aintzat hartuta aurreko epidemia-olatuak ([2005-2006](#) eta [2016-2017](#)), gure kokaleku geografikoak hegazti hibernatzaileen ibilbideekin bat egiten duela eta gure lurraldean hegazti basati migratzaile ugari biltzen dituzten hezeguneak daudela, egokitzen jo da Agindua berriro eguneratzea.

Helburu nagusia biosegurtasuna indartzea da, eta ez bakarrik arrisku bereziko eremuetan, baita zaintza bereziko lekuetan ere.

Erkidego-mailan, biosegurtasun-neurri murriztaileagoak ezartzeko aukera baloratzen ari da, agintaritzak eskudunak bidezkotzat jotzen badu. Nolanahi ere, erabaki hori birusa gure eskualdean sartzeko eta zirkulatzeko arriskuaren analisi batean oinarrituko da, egoera epidemiologikoaren ondorioz hori egitea beharrezkotzat jotzen denean.

Udalerrriak eta hezeguneak, aginduak bere eranskinetan jasotzen dituenak, ez dira aldatu aurreko agindutik; Araban daude, eta hauek dira:

- **Arratzua-Ubarrundia**

- **Barrundia**
 - **Elburgo/Burgelu**
 - **Legutio**
 - **Zigoitia**
 - **Salburuko hezegunea**
 - **Zadorrako urtegia**
 - **Santa Engrazia urtegia**
-

Oilo erruleetan Salmonella zaindu eta kontrolatzeko programa berria 2021erako

MAPAk duela gutxi argitaratu du oilo erruleetan salmonellaren hainbat serotipo kontrolatzeko programa nazionala 2021. urterako. Programa hori Animalien Osasun eta Higiene eta Trazabilitate Zuzendaritza Nagusiak egin du.

Programa hone xedeak dira:

1. ohikoenak diren **Salmonellaren 2 serotipo zoonotikoen presentzia kontrolatzea: *S. enteritidis*, *S. typhimurium*** (*Salmonella typhimuriumen anduia monofasikoak barne*) oilo errule helduetan, baldin eta horien arrautzak giza kontsumorako merkaturatzen badira.
2. bestetik, % **2ra edo gutxiagora murriztea** oilo errule helduen **talde positiboen multzoa**.

Programa hori **oilo erruleen ustiategi guztietan** aplikatuko da, heldu zein aurrerakoen hazkuntzakoetan, **autokontsumorako** arrautzak ekoizten dituztenetan **izan ezik**. Programa aplikatuko den ustiategi horiek agintari eskudunek baimenduta eta erregistratuta egongo dira. Azken kontsumitzaileentzako lehen mailako produktuen kopuru txikiak **zuzenean hornitzen** dituzten ustiategietan edo txikizkako salmenta-establezimenduetan, **urteko autokontrol bat** egingo da gutxienez, une horretan ustiategian dauden taldeetan.

Xede hori lortzeko, programan **bete beharreko hainbat betekizun** ezartzen dira, besteak beste, **biosegurtasun-neurriak betetzen direla egiaztatzeko protokoloa:**

- sarbideen kontrola
- uraren kalitatearen kontrola
- garbiketa eta desinfekzioaren kontrola
- izarrien kontrola

Ustiategien **titularrak arduratuko dira autokontrolak egiteaz (laginak hartzea barne)**, eta autonomia erkidegoetako **agintari eskudunek** egingo dituzte **osasun publikorako garrantzitsuak diren salmonellosien kontrola eta zaintza bermatzeko** beharrezkoak diren jarduketak.

Hegazti-gripea: Europako egoeraren eguneraketa

Frantziako Nekazaritza Ministerioak ohar bat argitaratu du duela gutxi, eta horren bidez jakinarazi du oso patogenoa den hegazti-gripearen 61 foku detektatu direla, nagusiki eskortako hegaztien abeltegietan. Horietatik 48 Landetan daude.

Europako beste zenbait herrialde bezala, Frantzia oso patogenoa den hegazti-gripeari aurre egiten ari da **azaroaren erdialdetik**. **Egoera epidemiologikoa okerrera** egiten ari da herrialde osoan, baina **batez ere Landetan**. Bertan, Frantziako hegazti-gripearentzako erreferentziazko laborategi nazionalak (ANSES) oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen foku bat baieztatu zuen gizentzeko [6.000 ahate zituen Landetako ustiategi batean](#).

Abenduaren 17an, Frantzia osoa **arrisku-maila altuan** sartu zen, eta frantziar agintariek **babes-neurri hauek** hartu zituzten, gaixotasuna zabaltzea saihesteko:

- kaltetutako hegaztiak hiltzea
- ustiategiak garbitzea eta desinfektatzea
- babes-guneetan eskortako hegaztien mugimendua debekatzea
- fokuen inguruak zaintzea
- biosegurtasun-neurri indartuak hartzea abeltegietan eta animaliak garraiatzean

Landetan kasuek oso azkar egin dutenez gora, eta **ANSESen** gomendioei jarraituz, Frantziako Gobernuak **prebentziozko hilketak ere** ari da egiten. Hilketa horiek 1 km-ko erradioan ari dira egiten kaltetuak izan daitezkeen espezieak dituzten ustiategietan, eta, palmipedo guztien eta konfinatuta ez dauden eskortako beste hegazti-espezie batzuen kasuan, 3 km-ko erradioan.

Halaber, **MAPAk** beste **informazio-ohar bat argitaratu du** bere webgunean, eta, bertan, **ADNSri** jakinarazitako **fokuen datuak ere eguneratu ditu**. Joan den **abenduaren 9tik gaur arte**, IAAPen **246 foku** jakinarazi dira guztira, gehienbat **H5N8** azpimotakoak, honako banaketa honekin: